

Ehunzango Jolasak aisialdi taldeak eta Udalak akordioa berritu dute

Aisialdia » Apirilaren 20rako irteera prestatu du Ehunzangok; Karrantzako Karpin parkera joango dira.

M. ORUE

Gernika-Lumoko udaleko Gazte-ria sailak eta Ehunzango Jolasak aisialdi taldeak urteroko akordioa sinatu dute berriti. Hitzarmen horren arabera, aisialdirako ekitaldiak antolatzearen ardura hartzen, jarraituko du Ehunzangok eta Udalak, aldiz, taldea diruz laguntzeko konpromisoa hartu du, aurreko urteetan abiatutako kanpainak gauzatu dituzten aruten ere. Hain zuzen ere, 12.000 euroko ekarpena egingo dio Udalak aisialdi taldeari, aurreko urteetako kopuru bera.

Hamabostero antolatzen ditu Ehunzangok ekintzak eta, horrez gain, zenbait opor egunetan ere ematen du zerbitzua, aste santuan zein inauterietan, besteak beste. Hamabostero ekintzen koordinatzaile Judith Rosillok jakinarazi duenez, «herrian dagoen eskaintzari alternatiba bat emate» dute helburu. Era berean, aurtengo erroka nagusia «kalea berreskuratzeko» izango dela dio. «Kalea jorlasteko gune bat izatea da gure nahia». Horretarako, hainbat ekitaldi prestatu ditu Ehunzangok. Besteak beste, irteerak, tailerrak eta joko ezberdinak izango dira urtean zehar.

Beste alde batetik, herriko beste talde eta elkarteekin elkarlanean aritzeko prest daudela adierazi dute Ehunzangoko kideek.

Irteera Karpinera

Datorren apirilaren 20an Karrantzako Karpin parkea ezagutzeko aukera emango du Ehunzangok, irteera antolatuta baitu egun horretarako. Umeei zein euren gurasoei parte hartu dezakete irteeran eta prezioa sinbolikoa izango da, 3 eurokoa, hain zuzen. Aldez aurretik eman beharko da izena, Gaztelekuan.

10:00etan aterako dira Gernika-Lumoko autobus geltokitik eta itzultzeko ordua, aldiz, 16:00etan ipini dute. Izena ahalik eta arinen emateko deialdia egin dute aisialdi taldeko kideek, autobus bat baino ez baitute antolatuko.

Iragarki laburrak

LANESKAINZA

■ **Gernika-Lumo.** Ostalaritza sektorerako langileak behar dira. Eguneko ordutegia. Bidali curriculum-a Gernikako 53. posta-kutxilara.

Sasetaren eta Ibrahim Abdiren lana aitortuko dute Gernika Sarien bidez

Gizartea » Gernikako bonbardaketaren urteurrenaren harira izango diren ekitaldiak aurkeztu dituzte.

MAITE ORUE

Begoña Landa alkateordeak eta Ekain Ormaetxea Kultura zinegotziak bonbardaketaren 71. urteurrenerako prestatutako ekitaldien berri eman zuten atzo goizean, Bilbon egindako agerraldian. «Memoria historikoa mantentze alde eta jazoera tamalgari hura berritri gerta ez dadin», Udalak berak zein herriko zenbait talde eta elkarteekin batera bitartean luzatuko diren ekitaldiak antolatu dituztela jakinarazi zuten. Horrez gain, aurtentzen Kandido Sasetaren eta Dekha Ibrahim Abdi keniarraren lana aintzatetsiko dela esan zuten, Bakea eta Berradiskidetzaren aldeko IV. Gernika Sariak eurentzat izango baitira.

Apirilaren 26an bertan egingo dute Lizeo Antzokian sari banaketa ekitaldia, baina, hori baino lehen hainbat ekitaldi izango dira urteurrenaren harira. «Remigio Mendibururen Gernika», «Ringelblum artxiboa. Varsoviako ghettoaren historia ezkutua» eta «Gernikako bonbardaketa agiritan» erakusketak, «Hilobi izkutuak hustuz, duintasuna berreskuratu: Guda Zibileko hilobi ikerkuntzaren balio sinbolikoa» izeneko hitzaldia, Bakearen eta kulturaren Nazioar-



Bonbardaketaren lekukoak Gernika Saria hartzen, Iaz. ZIHARA ENBEITA

teko XVIII. jardunaldiak, gerraren aurkako zinema ziklo-laburra eta institutuaren dagoen «Guernika horma-irudiari omenaldia, esaterako.

Egunean bertan ekitaldi ugari

Bonbardaketaren egunean bertan, 10:30ean, «El Bombardeo de Gernika» liburuaren aurkezpena egingo dute eta 11:00etan «Gerrako haurrak eta Gerrako fusilatuen senideak» elkarteetako ordezkari Michel Janper-ekin eta Johan Block-ekin batuko dira udal arduradunak. Bakea eta Berradiskidetzaren aldeko IV. Gernika sarietako ekitaldia ordu erdi berandua go izango da.

Sasetaren Aldeko Taldeak eta Ahaztuak-ek, bestetik, Kandido Sasetari omeneko dute Batzar Etxean. Arratsaldean, urtero legez, sirena hotsa izango da entzungai Pasealeku inguruan, bonbardaketaren ordu berean, 15:45ean.

16:30ean ohiko lore eskaintza egingo dute bonbardaketan hildakoen alde. Udal arduradunek jakinarazi dutenez, hainbat ordezkari politikok parte hartuko dute, besteak beste, Horst Jose Boogen Heudorf Alemaniako Errepublika Federaletako Kontsul honorarioak, Nicholas Rankin biografoak, Ge-

Apirilaren 26an bertan egingo dute Lizeo Antzokian sari banaketa ekitaldia

orge Steer semeak, Pforzeim-eko, Septfonds-eko eta Berga-ko ordezkariak, Joseba Azkarraga Justiziasailburuak eta herriko zein eskualdeko ordezkari politikoek.

Apirilaren 27an bonbardaketan bizirik atera zirenen XII. Topaketa egingo dute, eta lagunarteko bazkarian bilduko dira lekukoak.

» GERNIKA SARIAK

■ **Kandido Sasetari.** Hondarribian jaio zen 1904ko abenduaren 13an eta Asturiasko frontean hil 1937ko otsailaren 23an. Guda Zibila piztu zenean Eusko Jaurritzairen eskaini zion bere burua Gudarostearen esku hartzeko. Militar prestaketa zeukan abertzale bakarretakoa izan zen bertan. Abuztuaren 5ean iritsi zen Loiolako Santutegira eta bertatik Zarate, Belkoain, Ernio, Lekeitio, Kalamua, Eibar, Intxorta, Ubidea eta Itxandioko babesle-rrak eratzten ibili zen. Bere karisma ez zen Jaurritzairen baitalioetan bakarrik mirestua; EAE-ANV-ko gudari abertzale, CNTko sindikalista, PSOEko militante eta PCEko milizianoen artean ere miresten zuten. Aracessen hil zuten oste frankistek eta berekin batera 55 gudari.

■ **Dekha Ibrahim Abdi.** Nobel sari alternatiboa jaso zuen 2007an Right Livelihood fundazioaren eskutik. Hain zuzen ere, egoera etniko eta kultural ezberdinetan diferentzia erlijiosoak nola bazter daitezkeen erakusteagatik eman zioten saria. Keniako Wajir eskualdean bizi diren etnia ezberdinetako taldeen artean elkarrizketa eredu arrakastatsua jarri zuen abian 90eko hamarkadan. Ugandako, Etiopiako, Sudaneko eta Sudafrikako herrialdeentzat eredu bilakatu da berak martxan jarritako sistema. 1.000 emakumeen zerrendako hautagaia da eta 2005ean Bakearen Nobel saria lortu zuen.

» DATOZEN EGUN ETA ASTEETAKO EGITARAUA

■ **Atzotik ekainaren 15era.** «Remigio Mendibururen Gernika» izenburupean, erakusketa Euskal Herria museoan.

■ **Gaurtik ekainaren 22ra.** «Ringelblum artxiboa. Varsoviako ghettoaren historia ezkutua» erakusketa. Bakearen Museoan.

■ **Apirilaren 19an.** Bakearen Museoaren X. urteurrenko jaialdia. Sarrera dohainik, bisita gidatua, umeentzako ludoteka eta graffiti erakustaldia (11:30-13:30/16:00-19:00 h) eta txokolataa urratzen diren guztientzat (18:30-19:00).

■ **Apirilaren 22an.** Hitzaldi-solasak: «Hilobi izkutuak hustuz, duintasuna berreskuratu: Guda Zibileko hilobi ikerkuntzaren balio sinbolikoa». Hizlaria: Francisco Etxeberria (Aranzadi). Antolatzaileak: Gernikazarra, Bake Leku Txokoa eta Kultur Etxea. Elai-Alai aretoan, 20:00etan.

■ **Apirilaren 23tik 25era.** Bakearen eta kulturaren Nazioarteko XVIII. jardunaldiak: «Kosmopolitismoa eta Tokiko Bakegintza». Tailerrak eta mahaingururak. Antolatzaileak: Gernika Gogoratuz Az-

tertegia. Elai-Alai Aretoan, goiz eta arratsaldean.

■ **Apirilaren 24tik maiatzaren 10era.** «Gernikako bonbardaketa agiritan» izeneko erakusketa. Bibliografia, prentsa dokumentuak, argazkiak, dokumentalak... Laguntzaileak: Bakearen Museoako Dokumentazio Zentroa eta Gernikazarra Historia Taldea, Kultur Etxean.

■ **Apirilaren 24an.** Zine Kluba, Gernika-Lumoko bonbardaketaren 71. urteurrenko gerra aurkako ziklo-laburra: «Redacted». Antolatzaileak: Zine Klub elkarteak. Elai-Alai aretoan, 20:30ean.

■ **Apirilaren 25ean.** Zortzi artistek margotutako «Guernika»-ren gaineko horma-irudiari omenaldia. Artista batek parte hartuko du, «Artea eta konpromiso politikoa» gaiari buruz hitz egiteko. Antolatzaileak: Gernika Batzordea. Institutuan, goizez.

■ **Apirilaren 25ean.** - Zine Kluba: «Mirando al cielo». Antolatzaileak: Zine Klub elkarteak. Elai-Alai aretoan, 20:30ean.

- Maskarada taldearen «Picasso

1937, historia del Guernica» antzezlan. Lizeo Antzokian, 20:30ean.

■ **Apirilaren 26an.** - Doako sarrera Bakearen Museoan eta bisita gidatua 12:00etan, 13:00etan, 17:00etan eta 18:00etan.

- «El bombardeo de Gernika» liburuaren aurkezpena. Lizeo Antzokian, 10:30ean.

- «Gerrako haurrak» eta «Gerrako fusilatuen senideak» elkarteetako ordezkariekin bilkura. Lizeo Antzokian, 11:00etan.

- Bakea eta berradiskidetzaren aldeko IV. Gernika sariak. Antolatzaileak: Gernika-Lumoko Udala. Lizeo Antzokian, 11:30ean.

- Kandido Sasetari omenaldia. Gernika-Lumoko Udala eta Kandido Sasetaren Aldeko Taldea. Batzar Etxean, 12:30ean.

- Sirena hotsa Pasealekutik, 15:45ean. Antolatzaileak: Gernika Batzordea.

- Bonbardaketan hildakoen aldeko elizkizuna eta lore eskaintza. Zallo Hillerrian, 16:30ean. Antolatzaileak: Gernika-Lumoko Udala.

- Manifestazio isila kandelekin, 21:00etan. Antolatzaileak: Gernika Batzordea.

- Kontzertua: Fermin Valencia. Elai-Alai aretoan, 22:00etan. Sarrera doan. Antolatzaileak: Arrano Kultur Elkartea.

■ **Apirilaren 27an.** Bonbardaketan bizirik atera zirenen XII. Topaketa. Lagunarteko bazkaria Zallo Barri Jatetxean. Antolatzaileak: Gernika-Lumoko Udala.

■ **Maiatzaren 29an.** - Erakusketa, «Esklabutza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak mendebaldeko Pirinioan». Antolatzaileak: Memoriaren bideak. Ekainaren 12ra arte, kultur etxean.

- Hitzaldia: «Esklabutza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak mendebaldeko Pirinioan». Hizlariak: Fernando Manterola eta Edurne Manterola. Kultur etxean, 19:30ean.

■ **Ekainaren 5ean.** Hitzaldia «Memoria demokratikoa» izenburupean. Hizlaria: Ahaztuak 1936-1977 elkarteak. Kultur Etxean, 19:30ean.